



❖ ZUHAITZ EGUNA Izen ematea, Mendiriz Mendin

Zuhaitz Egunean parte hartu nahi duten helduek, izena emateko aukera dute gaur eta bihar, Mendiriz Mendiko bulegoetan (Iturregi plaza), 20:00etatik 21:00etara. ||

❖ GOIZ EGUZKI Urteko Batzarra otsailaren 29an

Goiz Eguzki jubilatutako etxeak urteko Batzarra egingo du otsailaren 29an. Arratsaldeko 16:30etatik aurrera ariko dira. ||

❖ OKERRAK ZUZEN Babarrun jatea, Goiz Eguzkin

Babarrun jatea egingo dute Goiz Eguzki jubilatutako etxeak, martxoaren 3an (ez Elur Txori elkarteak). Babarrunak izango dira, sakramentu guztietan, eta ondoren postrea eta kafea. Prezioa, 10 euro. Apuntatzeko, Goiz Eguzkiko tabernan bertan. ||

❖ HEZKUNTZA ETA ENPLEGU BATZORDEA Hernani Institutuko eraikinei buruz ariko dira gaur

Lau punturi buruz hitz egingo dute gaur, 18:30etan, Udaletxeko 1go bilera gelan, Hezkuntza eta Enplegu Batzordea bilduko baita bertan. Tartean, informazioa emango dute BHI Hernani Institutuko eraikinei buruz: 2012-13 ikasturtean ikasleak nola banatuko diren. ||

❖ GOBERNU BATZORDEA Batzordea, bihar

Gobernu Batzordea bilduko da bihar, 08:30etan, Alkatetzan. Zazpi punturi buruz ariko dira bertan, eta tartean, Txantxillako 11 etxebizitzaren eta aparkalekuaren behin betiko araubide hitzartutakoz kalifikatzeari buruz. ||

ARRANTZA

Hemen dela, berdela!

Asteartean sartu ziren lehendabiziko berdelak arrandegietan. Aurten, 2-3 astean bukatu liteke kanpaina, eta Hernaniko arrandegiek diote, jende asko inguratu dela berdela erostera.

ASTELEHENEAN hasi ziren arrantzaleak berdelak harrapatzen, eta asteartean iritsi ziren lehendabizikoak arrandegietara. Pieza politak ikusi zitezkeen atzo Hernaniko arrandegietan, eta jendeak jada erosi ditu lehendabizikoak. «Berdela ona iritsi da lehendabiziko egunetan, eta ondo ari gara saltzen» dio Amaia Etxarrik, Hernaniko Amaia arrandegiko jabeak (Kardaberaz kalea).

Jendeak nahi izaten du kanpainako arraina erosi, oso gertu harrapatzen delako, eta hurrengo egunetan arrandegietan izaten delako. «Kanpainan harrapatzen dutena oso freskoa izaten da; bezperan harrapatua».

Prezioa lonjan: 1,15-1,45 euro kilo

Lehendabiziko egunetan 1,15-1,45 euro egin ditu kilok lonjan, eta prezio hori jaitziko dela diote, kanpainak aurrera egin ahala. Hernaniko arrandegietan 4-7 euro artean saldu dute lehenengo bi egunetan. Diferentzia hori normala izaten da, bitartekari eta gastu gehigarriak izaten dituztelako arrandegiek.



Amaia Etxarrik dioenez (Amaia arrandegia), berdel ona sartu da lehendabiziko egunetan.

«Berdela apreziatzen dute bezeroek. Oso freskoa da, bezperan harrapatua, eta arrain urdina, osasunerako ona, adituek diotenez»

Azkar bukatuko da aurtengo kanpaina

Berdelaren kanpaina 2-3 astetan bukatuko da aurten, seguruenera. «Arrain urdina da, osasunerako ona, eta gero eta preziatuagoa da jendearen artean», dio Etxarrik. Arrantzaleak keja dira, arrain gutxi arrantzatzen

uzten dietelako. Guztira 19.000.000 kilo arrantzatu litezke Kantauriko uretan. Hori da aurtengo kupoa, eta lehendabiziko egunetan 2.000.000 inguru harrapatu dituzte.

Kostatik oso gertu ari dira berdela harrapatzen, eta oso ondo saltzen da berdela. Ho-

Arrantzatu litekeen kopurua: 19 miloi kilo

Kantauri hego-ekialdean 19.000.000 kilo berdel arrantzatu ditzakete aurten arrantzaleek. Kupo hori txikia dela diote arrantzaleek, eta horregatik, azkar bukatuko dutela kanpaina. Europar Batasunak jartzen du kupoa, eta zorrotz ari da bijilatzen, arrantzaleek diotenez. Zigor moduan jaitzi du kupoa EBak, eta 2015era arte kupo hori mantenduko du, 2010ean behar baino gehiago arrantzatu omen zelako.

rreratik, gero eta interes gehiago dauka era guztietako arrantzaleen artean. Hiru modutara arrantzatu liteke berdela: arrastean (kuporen hirutik bat), zerkoan (beste hirutik bat), eta amuarekin (hirutik bat). Guztira, 300 barku inguru ari dira arrantzatzen (euskaldunak, kantabroak, asturiarrak, eta galiziarak). Orain arte arrastretako barku gutxiak arrantzatu du berdela, baina aurten asko ari dira, arrantzaleek esan dutenez. Horregatik, kupoa berehala bukatuko dela adierazi dute.

Martxoan, antxoa

Hiru kanpaina nagusi izaten dira urtean: berdela, antxoa eta hegaluzea (bonitoa). Berdelarena martxoan bukatuko da, eta ondoren antxoa arrantzatzen hasiko dira, ekaina bitartean. ||

Sagardo naturala

ALBERRO SAGARDOTEGIA
Tolare sagardotegia
943 55 00 19

tripontzi
taberna
Egunero
Menuak
Kardaberaz, 11 if: 943555724

OIALUME
ZAR
SAGARDOTEGIA
www.oialumezar.com
943 55 29 38
Mikel Arozamena bidea, 16
20.115 ASTIGARRAGA

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez**: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauetz**: Etxebeste Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Egunsentian izoztuta argituko ditu bazterrak gaur, baina gero eguzkiak berotuko du giroa. Ipar-ekialdeko haizeak joko du. Min.0° / Max.13°
BIHAR Aldatu egingo du bihar. Goiz eguzkitsua eta arrats lainotsua espero dira, eta iluntzean euria egin dezake. Temperatura minimoek gora egingo dute. Min.4° / Max.13° (euskaime)

TXOTX DENBORALDIA 2012 - SAGAR LASTERRA

Zapatilak prest, larunbaterako

Sagar Lasterra larunbatean izango da, 11:00etan, 8,9 km-ko kross herrikoia. Izen ematea zabalik da, ostiralera arte: www.kirolprobak.com

HERNANIKO korrikalariek entrenatu dute entrenatu beharrekoa, eta zapatilak prest dituzte, larunbaterako. Sagar Lasterra izango da larunbatean, 8,9 km-ko kros herrikoia. Goizeko 11:00etan abiatuko dira Ibarluze poligonotik (Arraun elkartetik), eta Kiroldegian bukatuko dute, Hernaniko Kaxkoan eta sagardotegi inguruetan saio ederra eginda.

Autobusak Ibarluzera
 Ibarluze poligonoan hasiko da lasterketa. Bertara autobusez joateko, Kiroldegi aurretik aterako dira, 10:10etan eta 10:30etan (dohainik). Kamixetak ere Kiroldegi aurrean banatuko dira, karrera hasi aurretik, 09:00etatik aurrera.

Izen ematea, ostirala bitarte
 Oraindik bada izena emate-

ko aukera, interneteko helbidide honetan: www.kirolprobak.com (txip horia 7 euro, txip txuria 10 euro). Egunean bertan ere apuntatu liteke, Kiroldegi aurrean (15 euro).

Sari banaketa eta dutxak
 Lasterketa bukatu bezain laster egingo da sari banaketa, Kiroldegi aurrean. Dutxatzeko aukera ere izango da

PELOTA - TILOS 7 PASA

Martxoan hasiko da Tilos 7 Pasa Txapelketa

Martxoaren 12an hasiko da txapelketa, eta izen ematea zabalik dago martxoaren 2ra arte.

PELOTAZALE guztiei dei egin diete, Tilos 7 Pasa Txapelketan parte hartzeko. Iaz jokatu zen lehen aldiz pala txapelketa herrikoi hori, eta sekulako arrakasta izan zuen. Aurten udaberriari jokatu dute, argi ordu gehiago dagoelako, eta partiduak astelehenetik asteazkenera jokatu dira. Txapelketa martxoaren 12an hasiko da, eta ekaina erdialdera bukatu, San Joanak

baino lehenxeago.

Deialdi berezia, neskei
 Aurten ere bi txapelketa izango dira, neskena eta mutilena. Mutiletan 30 bikote izan ziren iaz, eta nesketan 5 bikote. Horregatik, neskei dei berezia egin diete, animatu daitezten.

Izen ematea zabalik dago martxoaren 2ra arte, 20 euroan eta helbide honetan: tilos7pasa@gmail.es ||



Emakumeak animatu nahi dituzte aurtengo txapelketarako.

SENDABELARREN IKASTARDA

Lau lagunentzat tokia dago oraindik

Sendabelarren ikastaroa hasiko da datorren asteartean Biterin, eta jakinarazi dutenez, lau lagunentzat lekua badago oraindik. Ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da 18:00etatik 20:00etara. Euskeraz izango da. Izen ematea, Biterin. ||

BIGARREN ESKUKO AZOKA

Larunbatean postua jarri nahi dutenek, izena eman behar dute gaur

Larunbatean, Bigarren eskuko azoka izango da eta produktuak saltzeko postua jarri nahi dutenek, izena emateko azken eguna dute gaur: 943 33 70 43 edo udaletxeko 4garren pisua. ||

ONGINTZA ETA GOIZ EGUZKI

Produktu 'milagrosoei' buruzko tailer praktikoa gaur, eta Gladys Eneara irteera, bihar

Goiz Eguzki jubilatu etxean, kontsumitzeari buruz ari dira aste honetan eta gaur, dendetatik kanpoko salmentei buruz ariko dira, eta produktu *milagrosoei* buruz. Begoña Olabarrietak tailer praktikoa eman-go du, 17:00etatik aurrera. Bihar, berriz, Donostiako Gladys Enea parkera joango dira, 10:00etan abiatuta (gehienez, 50 pertsona). ||

TXANTXANGORRI

Final laurdenetako mus partidak, gaur

Txantxangorri elkarteko Mus Txapelketa final laurdenetan da, eta gaur beste hiru partida jokatu dira, banaka eta binaka. Banaka: Bixente Goikoetxea/Joxe Amondarain. Binaka: Mauri-Txanpi/Ceci-Biurrarena; eta Esnal-Arregi/Etxarri-Urtxulutegi. ||

ERREMONTA - Sagardoaren Txapelketa Barrenetxea IVak irabazi beharra du gaur, final erdietara pasa nahi badu

Endika Barrenetxea hemaniarrak partidu garrantzitsua du gaur, Sagardoaren Txapelketan aurrera segitzeko esperantzarekin segi nahi badu. Urtasun eta biak ariko dira Matxin IIIa eta Ionen kontra. Lehenengo partidua galdu egin zuten Urtasun eta Barrenetxea IVak eta gaur presio handiarekin jokatu dute. Galarretako jaialdia 16:00etan hasiko da, eta bigarren partidua jokatu du hemaniarrak. ||

IRAGARKI MERKEAK

Pisua alokagai Antzolan. 2 logela, sala, sukalde eta komuna. Dena kanpoaldera, berria, bistak, 5. pisua igogailuarekin. 650 €. Deitu: 600 609 754 (Inmo. San Sebastian)

Gazte trebatu eta eskarmentuduna eskaintzen da sukaldari bezela lan egiteko. Deitu: 689 272 992

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Asteburuetan menu berezia eskaintzen dizuegu

22 €-tan

Koldo eta Aina

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

DORRONSORO

Ogi egin berria beti zure eskura

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:
 ⇨ **Lizeaga 4an.**
 Ogia eta bolleria aukeran.
 Orduetgia: 07:15-14:00/17:00-21:00

⇨ **Akarregi poligonoan,** obradore nagusia, denda eta kafetegia.
 Orduetgia: 05:30-13:30/16:00-19:30